

Donostia, 2018ko uztailaren 13a

IDAZKARI NAGUSIARI

HIRIAN EMAKUMEEK JASATEN DUTEN PREKARIETATE ETA EGITURAZKO DESBERDINKERIARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean lan prekarietatearen kronifikazioari buruz eta horrek hirian emakumeei eragiten dien kalteberatasun egoera larriari buruz bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Laneko prekarietatea kronifikatzen ari da Euskadin. Hiria ez dago errealitate horretatik salbu. Datuek erakusten dute soldata arrakala gero eta handiagoa dela, eta hori emakumeen lan baldintzak gero eta prekarioagoak direlako gertatzen da; gainera, emakumeak dira okupatuen artean behin-behinekotasun tasa handienak eta lanaldi partzial gehien dituztenak.

Sektore gero eta prekarizatuagoetan aritzen dira gehienbat emakumeak, eta horietako askotan, negozioazio kolektiboa blokeatuta dago duela urte askotatik; esate baterako, hori da ostalaritzako probintzia hitzarmenaren kasua, azken aldiz 2010ean eguneratu baitzen. Era berean, sektore ekonomiko bakoitzean beheragoko lan kategorietara baztertzen dira emakumeak, benetan betetzen dituzten zereginekin bat ez datozen kategorietara; aldiz, gizonen artean igoerak izaten dira.

Beraz, diskriminazio bikoitza gertatzen da: alde batetik, gehienak emakumeak diren sektoreetan lan baldintza okerragoak dituzte; bestetik, sektore ekonomiko ezberdinetan, beheragoko kategorietako postuetara baztertzen dira emakumeak. Ondorioz, etengabe ari da hazten soldata arrakala, eta gero eta handiagoa da. Gipuzkoako Ogasunaren azken datuen arabera, soldata arrakala dagoeneko 8.424 eurokoa da lurraldean, hau da, Euskadiko batez bestekoa baino ia mila euro handiagoa. Hain zuzen,

Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak, 2017ko txostenean, soldata arrakalari lotutako larrialdi deia egin du, esanez egiturazkoa dela Euskadiko lan merkatuan, behin-behinekotasuna bezala. “Marka bereizgarri” moduan definitu ditu bi horiek.

Zerbitzuen sektoreak eta batez ere ostalaritzak pisu handia dute gure hirian, turismoaren sektorea hazten ari delako, eta ildo horretatik, udan sortzen diren lanpostu gehienak ere behin-behinekoak eta lanaldi partzialekoak izaten dira, eta soldata oso baxuak izaten dituzte. Horrek ezinezko egiten du bizitza duin bat garatzeko aukera.

Gertaera horiek ikusita, tokiko hausnarketa bat ere egin behar dela iruditzen zaigu, lan prekarietateak bizitza duin bat edukitzeko pertsonak dituzten aukeretan dituen eraginei buruzkoa, batez ere emakumeetan oinarrituta, haiei eragiten baitie gehien prekarietateak.

Legegintzaldian zehar, zenbait neurri proposatu ditu Irabazi Donostiak, hazten ari den laneko prekarietate horri aurre egin nahian, prekarietate hori amaitzea baita Donostiako hiritarrek bizi proiektu duin eta iraunkor bat garatu ahal izateko funtsezko elementuetako bat. Besteak beste, honako hauek behar dira: prekarietatearen aurka egiteko udal planak eta lan iruzurrari aurre egiteko eta gero eta gehiago gertatzen diren lan ezbeharrei aurre egiteko akordioak Lan Ikuskaritzarekin. Funtsean, paradigma aldatu behar da, bizitza duina garatzea eta hiritarrek eskubideak izatea jarriz politika publikoen ardatzean, eta noski, baita lan arloan ere, emakumeen rola eta emakumeek bizi duten desberdinkeria amaitzeko politiken zeharkakotasunaren bidez.

Proposatutako neurriei eta udal gobernuak babestutakoei dagokionez, hartutako konpromisoak betetzearen garrantzia aldarrikatzen dugu. Aurtengo urtarrilean, Irabazi Donostiak ekimen bat aurkeztu zuen, eta aho batez onartu zen. Ekimen horrek udal gobernuari eskatzen zion hirian emakumeentzako kalitatezko enplegua sustatzeko lerro espezifikoa bat sortzeko; era berean, Berdintasun Bulegoarekin lankidetzan aritzeko eskatzen zion, Udalak berak eta haren sozietate publikoek enplegua sortzeko eta sustatzeko izan zitzaketen tresnen inguruan.

Aurtengo otsailean, berriz, hiru hilabeteko epean emakumeek jasaten duten egiturazko desberdinkeriarri buruzko azterketa egiteko konpromisoa hartu zuen udal gobernua, Irabazi Donostiak hala eskatuta. Epe hori pasa da dagoeneko, eta aipatutako azterketa horri buruz ez dakigu ezer.

Hartutako konpromiso horiek ez direla bete eta hirian emakumeen lan baldintzen prekarizazioak hazten jarraitzen duela ikusita, honako hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio patronalaren eta sindikatuen arteko elkarrikeria giroari lagun diezaiola, negoziazio kolektiboari mesede egin eta hirian emakumeek duten lan prekaritatearen kronifikazioari irtenbidea aurkitu ahal izateko.
2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio lan prekaritatea kontrolatzeko eta hari aurre egiteko mekanismoak sor ditzala eta kalitatezko enplegua sortzen laguntzeko neurriak ezar ditzala.
3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio legegintzaldia amaitu baino lehen hiriko emakumeen eta gizonen beste diagnosi bat egin dezala. Diagnosi horrek hiriko emakumeek bizi duten egiturazko desberdinkeria bukatzeko neurriak planteatzeko aukera eman behar du.
4. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio informazio kanpaina bat egin dezala legegintzaldia amaitu baino lehen. Kanpaina horrek hirian dagoen prekaritate gero eta handiagoa bistaratzeko balio behar du, eta emakumeek eta haien prekaritate gero eta handiagoak izan behar dute protagonista.



5. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio aurtengo urtarrilean udalbatzan egindako akordioa bete dezala eta gainerako udal taldeekin parteka dezala enplegua sortzeko Udalak eta haren sozietate publikoek dituzten tresnei buruzko azterketa.

6. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio urtea amaitu baino lehen bete dezala aurtengo otsailean udalbatzan egindako akordioa, hiru hileko epean hiriko emakumeek pairatzen duten egiturazko desberdinkeriei buruzko diagnosi bat egin eta aurkezteko konpromisoa hartu baitzuen, diagnosi horretatik abiatuta aipatutako desberdinkeriei aurre egiteko oinarriak ezartzeko, eta oraindik ez baitu aurkeztu.

Sin.: Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.